

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko uztaiak 20

Andramaixak
gertu

Santixauak
Koruetan

Kirola:
Zikloturistak



Nekazalturismoa: aizi-aldirako aukera

Aretxagazetako kolaboratzaileei, J.J. Aretxaga, Aitor Antxia eta Iñaki Urreta Leturiondo, laguntzatxo bat eman diguzuen guztioi, bazkideei, publizitatea egiten duzuenoi, Imanol harategia, Feli jantzidenda, Begi ondo, Errasti Akeitak, Lasa-Aguilera, Arenaza Altzariak, Oskar harategia, Zaraia masaiak, Ibarra estankoa, Dorleta taberna, Mikelos jantzidenda, Don Video, Aretxabaleta Okindegia, Lie drogeria, Oskar Garajea, Maritxu mertzeria, Garaje Norte, Pagaldai pentsuak, Mari Merke, Mafre, Arbulo harategia, Amets taberna, Miren Zuriñe bitxitegia, Sagasta elektrizitatea, Ofiservis, Matikua, Baster-alde, Jauregi okindegia, Imanol Arrazola dentista, Izozkitegia, Maite ileapaindegia, J.J. iturgintza, Urkiola argazkidenda, Tximak ileapaindegia, Zaraia taberna, Martin erloju denda, Josu harategia, Leibar arraindegia, Txilarra belardenda, Gurea taberna, Taberna-Berri jatetxea, Bengoa mertzeria, Aretxabaleta iturgintza, Angelines autozerbitzua, Bengoa urdaitegia, Todos Lete, Memesa, Arlutz taberna, Urbaltz taberna, Haizea taberna, Izotz taberna, Eloy Borjas sukalde eta altzariak, Aitziber umeentzako erropak, Expres taberna, Artano taberna, Argi-Plastic, Gemes edertze aretoa, Lasagabaster, Asensio, Urkulu ferreteria, Euskaltea, Doikalse, Altuna zurgindegia, Azkena taberna (Txiki bar), Amaia-Berri S.L., Garbitze, Portasol zurgindegia, Olaben, Beiralan, Zuhaitz jatetxea, Zerbite, Garbitu S. Coop., Shot grabaketak, Pagaldai drogeria, Eguzkigraf, Eroski, Felix Arrese edariak, Psikopedagogiko zentrua, Epelde argazkiak, Zenbaki, Aretxabaletako Industrialdea S.A., Arquero Anaiak, Ludi-Berri musika taldea, Mendiola erretegia, Logopedia Zentrua, Citroen Talleres Chapime, Ford Mugarri, Meca, Amuebladora Mondragonesa, United Colors of Benneton, Lan Kide Aurrezkia, Azbe, Jose Aranzabal sukalde altzariak, Beiralan, Pausoka haur eskola, Arrasate kristaldegia, Burgales jatetxea, Errekabarren Merkatal Zentrua, Muruamendaratz goxotegia, Aretxabaletako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Zubiaga bitxitegia, Cim hizkuntzak, Eskoriatzako irakasle Eskola, Leber Gabinetea, Imanol harategia, Feli jantzidenda, Begi ondo, Brasileña kafeak, Lasa-Aguilera, Arenaza Altzariak, Oskar harategia, Zaraia masaiak, Ibarra estankoa, Dorleta taberna, Mikelos, Don Video, Aretxabaleta Okindegia, Lie drogeria, Oskar Garajea, Maritxu mertzeria, Garaje Norte, Pagaldai pentsuak, Mari Merke, Mafre, Arbulo harategia, Amets taberna, Miren Zuriñe bitxitegia, Sagasta elektradenda, Ofiservis, Matikua, Baster-alde, Jauregi okindegia, Imanol Arrazola dentista, Izozkitegia, Maite ileapaindegia, J.J. iturgintza, Urkiola Amuebladora Mondragonesa, United Colors of Benneton, lan Kide Aurrezkia, Azbe, Jose Aranzabal, Beiralan, Pausoka haur eskola, Arrasate kristaldegia, Burgales jatetxea, Errekabarren Merkatal Zentrua, Muruamendaratz goxotegia, Aretxabaletako Udala, Mendiola erretegia, Logopedia Zentrua, Citroen Talleres Chapime, Ford Mugarri, Meca, Amuebladora Mondragonesa, United Colors of

Eskerrik asko guztioi zuen laguntzagatik. Opor eta jai zoriontzuak izan!!!

Zelan ikusten duzu Atxabalta turismo leku moduan?

*Arrate Arkaux
(Ikaslea)*

Inguru oso polita daukagu, eta turismorako leku egokia izango litzatekeela uste dut. Askok ez dute apreziatzen inguruan daukaguna.




*Javier Mar
(Langilea)*

Turismorako herrian daukagun interesgarriena Urkuluko urtegia da. Bestalde ez dago gauza haundirik.




*Eli Aldalur
(Ikaslea)*

Herria bera ez da erakargarria. Baina ingurua turismorantz bultzatu beharko litzateke para je ederrak ditugu eta.



*Juan Urreta
(Jubilatua)*

Nik ondo ikusten dut. Herriak berak baino inguruak gehiago balio du turismorako, Apotza, Gellao, Urkulu, e.a.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Aretxagazetak ere oporrak

Irakurle maiteok,

Opor sasoia iritsi da. Guri ere atsedenditxo bat hartzeko garaia heldu zaigu. Ez da luzea izango irailaren lehenean aterako dugu hurrengo alea eta. Hurrengo Aretxagazetan Andramaixetako kontuak kontatuko dizkizuegu, egongo da zer kontatu.

Besterik gabe, oporretan ondo pasatu eta Andramaixetan ere berdin, gu ere hortan ahaleginduko gara.

*Opor eta Andramaixa osterarte agur motz batekin agurtzen gara, **ondo izan!!!***

ARETXAGAZETAKO BATZORDEA

Oharra: *Aurreko alean Andramaixetako kartel lehiaketako hirugarren kartelaren irabazlea Leire Bazquez zela jarri genuen. Izena ez dago gaizki jarrita baina kartel horren egileak hiru neska izan dira eta ezin hauen izena aipatu gabe utzi. Hiru neska hauek, **Leire Bazquez, Mireia Valle eta Yera Sanchez** dira.*

Aretxagazetako batzordea

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia
Erredakzio-kontseilua: Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantza Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, J.J. Aretxaga, Iñaki Urreta, Loramendi K.E., Udala.
Inprimategia: Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Hona hemen lehenengo hiru sarituak. Ezkerretik hasita, Jose Ignacio Treku 2. saritua, Esteban Oroz 3. saritua eta azkenik Julio Gomez lehenengo saritua

30 lagun aurkeztu ziren IX. margo lehiaketara

Urtero moduan, aurten IX. margo lehiaketa uztailaren 9an egin zen Atxabaltan. Bertan bildutako 30 partehartzaileek koadro politak margotu zituzten. Gehienek herritik kanpo margotzea eta paisaia margotzea gurago izan zuten. Horregatik banaka batzuk herrian gelditu eta beste askok auzoetara igo zuten. Esan behar da, kanpotar askok parte hartu zutela. Aurkeztu ziren atxabaltarrak 5 izan ziren guztira, 4 infantil mailan eta bakarra nagusietan.

Epaimahaia pinturan adituak diren, Jose M^a Agirrezenitagoia, Juan Serrano, Dionisio Murua eta Imanol Larrabeitiak osatu zuten. Beraien ustez ondorengoak izan ziren margo lan onenak:

1.go saritua **Julio Gomez** (50.000 pzta eta trofeoa)(Leioa)

2. saria, Debako **Jose Ignacio Treku** (30.000 pzta eta trofeoa).

3. saria, **Esteban Oroz** eibartarra (25.000 pzta eta trofeoa)

1.go atxabaltarra **Idoia Elexpuru** (15.000 pzta eta trofeoa)

1.go infantila **Eluska Zabalo** (Margotzeko materiala) (Arrasate)

2. infantila **Fernando Latorre** (margotzeko materiala) (Eibar)

1.go atxabaltarra **Igor Olalde** (margotzeko materiala)

Akzesita **Andres De Prego** (15.000 pzta) (Leioa)

Originaltasunari akzesita **Consuelo Fernandez** (10.000 pzta) (Eibar)



Julio Gomez irabazleak margotutako koadroa



GARAGE NORTE S.L.


Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

BASTER-ALDE JATETXEA



SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

CONSTRULAN ARQUERO ANAIK

Indusketa eta
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11

Tfno eta faxa: 79 01 51

ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

Andramaixak, herriko festa nagusiak abuztuaren erdi-erdian guri begira egongo dira. Jaietan hemen egongo zaretenok izango duzue zerikusirik, Mus txapelketa, umeentzat ekintza mordoa, erromeria, sokamuturra, pelota partiduak, suzko erruerak, e.a. Ekintza berezirik ere izango da, orain artean antolatu izan ez den kotxe eta motor zaharren erakusketa bitxia hain zuzen ere. Kontuak kontu hona hemen jaien egitaraua labur-labur.

Abuztuak 14 astelehena (jai bezpera)

Arratsaldeko 4,00etan kanpai jotzea.

16,30etan, XVII. Mus txapelketa.

16,00etatik 19,00etara Mozoloak txaranga.

16,30etatik 19,00etara umeentzat parkea Herriko Plazan. (2 ohe elastiko, "Santa Fe" tren elektrikoa, lau monoziklo, gaztelu puzgarria)

19,00etan, erraldoi eta buruhandiak.

19,30 meza Andra Mari Parrokian.

20,30etan ikurrinari agurra, txalaparta eta txupinazoaz lagundurik.

Gaueko 22,00etan dantzaldia Imuntzo eta Beloki trikitilariekin.

23,00etan X. Bolo txapelketa.

* Eguerdiko ordu 1etatik arratsaldeko 5ak arte ikusgai egongo da Durana kalean **Kotxe eta motor zaharren erakusketa.**

**Oporretan egin
tartetxo bat
Andramaixei**

Abuztuak 15 martizena Andra Mari eguna

10etan Diana herriko txistulariekin.

11etatik ordu 1etara umeentzat parkea Herriko Plazan.

11,30etan Zumaiako Bandaren kalejira.

12etan Meza Naguzia.

Ordu 1etan, Zumaiako bandaren kontzertua Durana kalean.

16,00etatik 20,00etara, Haurrentzako parkea Herriko Plazan.

16,00etatik 21,00etara, "Txopolis" txaranga.

22,30etan Iturrigorri frontoian pelota partiduak.

22,30etan dantzaldia Durana kalean **KOXKA** taldearekin.

* Pilota partiduen ostean **SUZKO ERRUERAK** Azben.

Abuztuak 16 asteazkena

9,30etan Txirrindulari lasterketa

11,30etatik 12,30etara Pailazoak Herriko Plazan.

12etatik ordu 2etara herriko trikitilariak.

12,30etan herri kirolak.

Arratsaldeko 17,00etan gazteentzat bolo txapelketa eta marrazki lehiaketa.

17,00etatik 18,00etara "Beti-koak" txaranga

18,00etan, Sokamuturra.

19,00etatik 21,00etara "Beti-koak" txaranga.

19,00etatik 23,30etara umeentzat parkea Herriko Plazan.

22,30etan, pilota partiduen finala Iturrigorri frontoian.

22,30etan "Trikitixa Kontrairo" taldearekin dantzaldia Durana kalean.

Gaueko 12,00etan 2 zezen suzko plazan.

Abuztuak 17 eguna 3. eguna

10,30etan Txistulariak.

11etatik 12,30etara "Birikituriak" txaranga.

11,30etan Sokamuturra.

12,30etan kaleko antzerkia "kukubiltxo" taldearen eskutik.

13,30etatik 14,30etara "Birikituriak" txaranga.

14,30etan herri bazkaria, paella, oilazko errea entsaladarekin eta ijitu besoa eta izozkia. Prezioa: 1.600 pza.

17,00etatik 19,00etara txiki-entzatzat parkea Herriko Plazan.

17,00etatik 18,30etara "Birikituriak" txaranga.

18,30etan sokamuturra.

19,00etatik 21,00etara, poteoa gazteleku txarangarekin.

22,30etan Gazteleku txaranga.

Adi!!! sokamuturrean, 14 urtetik beherakoek debekatuta dute parte hartzea.

DOIKALSE

Elektroerosioa
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

FOTO

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAleta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Santiago jaiak Koruetan

Portasolen, San Lorentzoak eta Larrinuko San Kristobalak pasatu barri ditugu. Baina uda aldera jaigiroa izaten da nagusi leku guztietan. Atxabaltan ere ez dira jaiak bukatu, uztailaren 24 eta 25ean Santixauak ospatzen dira Koruetan eta. Bi egunetan zehar honako ekintzak egongo dira:

Uztailak 24, astelehena

Arratsaldeko 5etan haurren jolasak
6retan, **kanpai errepikak** eta jarraian **VII. mus txapelketa**, emakumeen **II briska txapelketa** eta **marrazki lehiaketa**.

7,30etan, **sari banaketa**

8etan, **meza**

Gaueko 9etan, **auzoko afaria** eta **10,30etan dantzaldia** Elkorobarrutiarekin.

Uztailak 25, martizena Santiago Eguna

Eguerdiko 12,30etan **kanpai jotzea** eta ordu batetan **meza nagusia**.

Ondoren **luntxa** eta **bermout dantzaldia** Elkorobarrutiarekin.

Arratsaldeko 5etan, **haurren jolasak**.

Eta egunarekin amaitzeko arratsaldeko 7etan **Gaztetxoan akordeoi orkestraren kontzertua**.

Koruetarrok eta bertara hurbiltzen diren guztiek ondo pasatzeko aukera izango dute bi egun hauetan.

San Inazio eguna Murualden

Uztailaren 31an San Inazio eguna ospatuko du Murualde Elkarteak. Egun horretarako hainbat ospakizun antolatu ditu. Goizean 10etan etxafleroak jaurti ondoren salda egongo da denontzat.

12etan parrokian meza egongo da hildako bazkideen omenez.

12,30etan bolo txapelketa sari interesgarriekin.

Ondoren eguerdiko ordu 1etan txikiteoa Zabale anaiekin eta ondoren 2,30ak aldera bazkaria. Bazkarian Andoni Egaña eta Solozabal bertsolaria egongo dira, baita Zabale anaiak ere giroa alaitzen. Gauean, Zabale anaiekin erromeria izango da, Elkartearen aurrekaldean.



60 bat lagun elkartu ziren Apotzan

Zapatuan, uztailaren 15ean ARATZ, Atxabaltako atzeratuen aldeko taldeak antolatuta urteroko jaiak izan zen Apotzan. Bertan, Atxabaltako eta Eskoriatzako atzeratuak elkartu ziren. Goizean joku desberdinak egin zituzten; ondoren, Apotzako soziedadean bazkaria. Bazkalostean, dantzaldia. Ez zen umorerik faltatu bertan egondakoen artean.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

KELER



El León

Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9

Tfnoa: 79 19 79

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

Martín

RELOJERIA - BIXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16

Tfnoa: 79 01 72

Udala eratzeko plenoa egin zen astelehenean

Alkatearen aukeraketa egin zenetik hilabete pasatu denean, uztailaren 17an hain zuzen ere, eman zen ezagutzera Udaleko gobernu taldea zein alderdik osatuko duten eta arlo bakoitzean zein zinegotzi egingo diren.

Azkenean, egondako tirabiren ostean alderdi guztiak sartu dira Udalen eraketan. Hori bai, negoziaketa gogorra izan da eta bilera asko egin behar izan dituzte akordio batetara iristeko.

Juan Antonio Rodrigerez alkateak irakurri zuen gobernu barriaren eraketa. Gobernu batzordea ondorengoek osatzen dute: Adolfo Etxeberria, Koldo Azkoitia, Angel Bergaretxe eta Iñaki Pierrugesek.

Alkate orderako barrez ondorengo da zerrenda: lehenengo Adolfo Etxeberria, 2. Iñaki Pierruges, 3. Angel Bergaretxe eta 4. Koldo Azkoitia.

Arlo desberdinei dagokien zinegotziak honela banatu dira: guztira 5 area egongo lirateke eta 5 area horreitan sartuko lirateke 12 arloak.

Horrela lehenengo arean, ongizatea, ingurugiroa eta garapen ekonomikoa daude. Ongizatearen arduraduna Clemente



Gobernu taldeko kideak hauexek izango dira

Domingo da; ingurugiroarena, Mikel Otero eta garapen ekonomikoarena Adolfo Etxeberria. Area honetako arduraduna barrez, Adolfo Etxebarria.

2. area, kultura, kirola eta kontsumoa arloek osatzen dute. Areako arduraduna Iñaki Pierruges da. Arloak osterat honela banatzen dira: kirola, Iñaki Pierruges; kultura, Imanol Aizpurua; kontsumoa, Lorenzo Fernandez.

3. arean, hezkuntza eta hizkuntz normalkuntza sartzen dira. Area honetako arduraduna Angel Bergaretxe da. Ordezkarriak osterat ondorengoak, hezkuntzarena Jesus Akixu eta hizkuntz normalkuntzarena Angel Bergaretxe.

4. area, hirigintzak osatzen du. Koldo Azkoitia da arduraduna.

Hirigintza planteamendua Koldo Azkoitiak eraman du; obra eta zerbitzuen gestioa, Luis Errastik; auzoak, Jesus Kortabariak.

5. area eta azkena, ogasuna da eta Elena Vazquez da arduraduna.

HBren prentsaurrekoa

Gobernu batzordearen aurkezpena amaitu ondoren prentsaurrekoa eman zuen HBk. Garbi utzi nahi izan zuen gobernuan sartu baldin bada ere negoziaketa gogorren ostean izan dela. Beraien adierazpenetan ilusioz beterik daudela adierazi zuten lau zinegotziek. Herriak beraiengan jarri duen konfiantzagatik harro eta pozik daudela, nahiz eta erabatekoa ez izan, herri interesen gaitetik alderdien interesak jarri zirelako.

□ Irailean ospatzen diren Arientzako Andramaxetarako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute arientzarrek.

Aurkezteko arauak aterata daude dagokieneko. Parte hartzeko arientzarra edo senitar-tekoa izan behar da. Kartela DINA-4 tamainakoa izan beharko da bai koloretan edo eta txuribeltzean egin. Gaia Arientza eta aurkezteko azken eguna abuztuaren 27a.

Sariak 15.000 pezeta izango dira guztira.

Lehiaketa honen babeslea Felix Ilemoztegia da eta lehiaketaren arauak zeintzuk diren jakin gura duenak bertara jo beharko du.

□ Gogoratu, urtero moduan, aurtan ere abuztuaren Aretxabaleko igerilekuko karnetarekin Arrasateko igerilekura joateko aukera izango dala. Abuztuaren Aretxabaleko kirol-Etxea itxita egongo da. 6 urtetik beherakoek Musakolako igerilekua erabiltzeko karneta beharko dute.

JOSU
HARATEGIA

**URDAITEGIA-
GOZOTEGIA
KROASANTEGIA
"JANARI
PRESTATUAK"**

Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A.**

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

HEZIBIDE giza-ekimenari esker sortutako 8 zentruk osatzen dute.

Horietatik 4 ikastolak dira -Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umenzaintza- eta berauek dira, hain zuzen, HEZIBIDEko Euskara Taldean parte hartzen dutenak.

HEZIBIDEk euskararen normalizazio, indartze, erabilerari... buruzko duen ardura ez da gaur goizekoa eta ez da gaizki etortzen, noizean behin, atzera begiratzea.

1975. urtean, gaur egungo HEZIBIDEren, papera betetzen zuen "Liga de Educación y Cultura"ren eskutik, eta orduan "Arrasate Ikastola" zeritzonak dinamizaturik, "EPE LUZERAKO PLANA 1975-1980" delakoa gauzatu zuen. Plan honek bi helburu nagusi zituen: ikaslegoaren % 70a euskalduntzea eta horretarako ikastetxe guztien inplikazioa lortzea -nahiz eta Almen eta San Viatorrek bakarrik onartu zuten-

Urratsaren bidean



Hezibideko Euskara Taldea

Epe Luzerako Plan honek, beste hainbat eragilerekin batera, gaurko egoera guztiz bestelakoa izaten lagundu du. Deba Garaian 75/76 ikasturtean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikaslegoaren % 12ak euskarazko eredia, D eredia, hautatu bazuen, 94/95 ikasturte honetan %76ak egin du aukera hori. A eredia, gaztelerazkoa, aldiz, 75/76an % 88ak aukeratu zuen eta aurten ikaslegoaren % 0,3a bakarrik suposatzen du, ia ia desagertuz.

Irakaskintzan emandako lorpen hauei eta herrietako euskara taldeek 10 urtetatik honuntz egindako lanari esker, gure bailaran euskarari bultzada galanta eman zaio.

Bidea luzea jorratu badugu ere, badago oraindik zereginik, eskolak ez baitu eragiten euskarazko mintzajardunean nahi ala uste bezain haina. Eskolaz kanpoko gizarte loturak eta indargarriak behar-beharrezkoak ditu euskara INDARTU, HEDATU eta ABERASTU nahi badugu behintzat.

Zeregin horrek eraman zuen HEZIBIDE bere Plan Estrategikoko 9. Ekintza-Plana, "Hizkuntz Normalizazioa Bultzatuz", gauzatzera.


Ekintza-plan honetan bi atal bereiz daitezke: bata, ikastetxe barruan egin beharreko ekintzak osatua eta bestea, ikastetxetik kanporakoek osatua.

Euskararen normalizaziorako ahaleginetan hainbat dira lanean diharduten giza-ekimenak. Baina:

-Berauen artean lotura hestuagoa lortzeak ez al luke denon helburua lortzen lagunduko?

-Ikastetxeen eta herrietako euskara taldeen arteko topagune edo loturak ez al luke mesede egingo?

Euskara denon ondarea izanik, ez al genituzke bereizkeria guztiak alde batera utzi beharko?



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**MAITE
ILEPAINDEGIA**

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABAETA

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

**ZUHAITZ
jatetxea**



ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 48 77 ARRASATE

Ramon Elkoro: "Herritarrengandik jaso dudan laguntza eskertu gura nuke"

Munduko alderdi desberdinetan ibilitakoa dugu Ramon Elkoro. Urtarrilaren 7an Diakono egin ondoren, 50 urtekin abare egin da.

Egia esan orainartean bizi izan duen bizitzak erabaki hau hartzera eramán du. Han eta hemen ibilia da, beti ere kristautasunarekin lotutako bizimodua egin du. Soldaduzka egin ostean, Frantzia komunitate batean egon zen. Handik etorri eta 3 urte eman zituen Aretxabaletan fabrika lanean. Tarte honetan parroko elkartean sartuta egon zen.


Hemendik Venezuelara joan zen misiolari. Eskola batetan lana egin eta tarteka apaiz bati laguntzen zion.

Bost urte Venezuelan pasatu ondoren etxera itzuli eta teologiako ikasketak burutu zituen. Gero barriro Venezuelara joango zen beste bost urte egiteko. Handik etorri eta erlijioso sartzearabaki zuen eta Malaga eta Zaragozan kongregazio batean egon zen.

Azkenean, abare egiteko erabakia hartu zuen. Horretarako Euskal Herrira itzuli eta Setien Gotzaiari jakinarazi zion bere asmoa. Gotzaiak erabakia onartu ondoren, bi urtetan Irunen parroki batetan egon zen lanean.

San Pedro egunean Donostian egin zen abare eta horrela bere helburua beteta ikusi du. Bide hau

San Pedro egunean abare egin zen Donostian. Geroztik Atxabaltan ere eman ditu mezak. Abuztu aldera Oiartzunera joango da eta han jarraituko du abare lanetan.



hartzea asko kostatu zaio baina azkenean oso pozik dago hartutako erabakiaz.

Ramonentzat abare egiteko adinik ez dago. Hori bai, heldutasun bat izan behar dela azpimarratu du "ezkontzarako moduan heldutasun bat izan behar duzu erabaki hau hartzeko. Ziurtasuna izan behar da eta ideiak ondo garbi izan".

Abade egindakoan ez da norberaren herrian gelditzen. Ramon Oiartzunera joango da eta bertako abareari lagunduko dio. Han jarraituko du bere zerbitzua eskaintzen, behartsuei lagundu, mezak eman, e.a.

Ramon gaurregungo apezgoak bizi duen egoeraz jabetzen da. Hala ere, etorkizuna itxaropentsu ikusten du, "ez dago desanimatu

beharrik, gero eta abare gutxiago dagoela garbi dago eta errealitate hau onartu beharra dago. Gizartea aldatzen den moduan eliza ere aldatu beharko litzateke. Jesusek ebanjeliotik bidaltzen digun mezua aldiz ezin da aldatu."

Lerro hauetatik, herritarrengandik jaso duen laguntza eskertu gura du Ramonek. Bai Diakono egin zenean eta baita Atxabaltan lehen aldiz meza eman zuenean ere lagun mordoa hurbildu zen Andra Mari parrokira. Guzti honek benetan poztu zuen ez zuen uste horrenbeste lagun hurbilduko zenik eta.



TABERNA-BERRI
JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

"ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"
Tefonnoa: 79 62 80
ARETXABALETA (GIPUZKOA)

URBALTZ



TABERNA

Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA



J. ALTUNA
Zurgindegia

Sukalderako
altzaria

Basabe Poligonoa, A-2-3
79 72 55 Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegi
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

Baserria eta turismoa

Baserriak erakarri egiten du eta etorkizuna izan dezake. Hori pentsatu dute behintzat Euskal Herriko hainbat baserritarrek. Dagoeneko 154 baserri inguru dira nekazalturismorako prestatu dituztenak. Hoietatik 84 Gipuzkoan, 44 Bizkaian eta 26 Araban. Ez dira ez kopuru makalak eta oraindik zifra hauek goranzko joera izango dute.

1988. urtean hiru Diputazioek eta Eusko Jaurlaritzak nekazalturismoa arautzeko legea aurkeztu zuten. Horrela, lehenengo baserriak 89. urtean hasi ziren martxan Euskal Herrian.

Hala ere, European lehenagotik ezagutzen zen nekazalturismoa, Ingalterra, Holanda, Frantzia eta Suiza aldean batez ere.

Batzuk negozio bat dela uste izango dute baina zehazki baserriaren explotazioari gehitzen zaion konplementu bat da. Baserriko lanetatik jasotzen diren sarrerei dirulaguntza bat gehitzea hain zuzen ere.

Nekazalturismoak giro lasai eta polit batean egun batzuk igarotzeko aukera eskaintzen du. Aisi-aldirako aukera zabala, hala nola naturarekin hartu-eman haundiagoa eta era berean herri bateko kultura saketik ezagutzeko aukera ere bai.

Dirulaguntza

Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak diru laguntza ematen dute, baserria nekazalturismorako egokitu ahal izateko, logelak, bainuak jartzeko, e.a.

Dirulaguntza hau ez da beti berdina izaten, baserritik bakar bakarrik bizitzeak edo eta baserritik kanpo sarrerak izateak baldintzatzen dute kopurua. Hau da, dirulaguntza ez da berdina izango baserritik oso osoan bizi denarentzako edo baserritar mixtoa den batentzako (lantegian lan egiten duena). Gehienez % 40a izango da dirula-

guntza.

Baldintzak

Gaurregun turismo aldetik eta Diputaziotik baldintza zehatzak eskatzen dira nekazalturismotik bizi ahal izateko. Lehenik eta behin, baserritarra izan behar da, baserrian bizi eta baserria landu. Honez gain, nekazal gizarte segurantzaz izatea ere beharrezkoa da. Azken azkenean turismo bulegoa da zabaltzeko lizentzia lutzatzen duena, baldintza guztiak betetzen badira behintzat.

Baserriak zerbitzu minimo batzuk ere bete beharko ditu. Esaterako, baserri bakoitzak gutxienez bi oheko 2 gela izan beharko ditu eta gehienez 6 gela. Garbiago esateko gutxienez 4 lagunendako lekua eta tope moduan 12 lagunendako lekua izan beharko du.

Dirulaguntza hau jasotzen duenak Diputazioarekin lotura bat har-



tzen du, horrela baserriek bost urtetarako konpromezua hartzen dute beraien etxera datorrena hartzeko.

Nolako jendea etortzen da?

Madrildar eta kataluniarrak osatzen dute Euskal Herriko nekazalturismoan kopururik haundiena. Esan behar da uda garaia izaten dela baserriak gehien betetzen diren sasoiak.

Normalean kanpora irtetzeko ohitura duena hurbiltzen da baserrietara, hotelekin aspertuta dagoena. Bikoteak, senar-emazteak umeeekin eta gazte koadrelek disfrutatzen dute gehien nekazalturismoaz. Jende jatorra izaten da, etxea eta ingurua errespetatzen dakiena.

Kanpotar eta etxeokoren artean harreman sakonago eta estuagoak sortzen dira nekazalturismo baserrietan, hoteletan, pentsioetan, e.a. baino.

Nekazalturismoa gure inguruan

Aretxabaletan dugun nekazalturismo etxe bakarra Mitarte-Garaikoa da. Mendiolan laster zabalteketan dira beste bat iraila aldera, Areano baserria hain zuzen ere. Oñatin Emparantza baserria dago eta Aramaixon ere Zabola auzoan Unzueta baserria.

Mendiolan zabalduko duten nekazalturismo baserriak, 2 oheko 6 logela izango ditu eta pentsio osoa eskainiko du.

Aramaixon, aurtengo San Juanetan zabaldu zen Unzueta baserria nekazalturismoarako. Lau logela ditu guztira eta jatetxea ere badu.



Bitxia da haria nola egiten den ikustea. Bixente Pagoaga, argazkian duzuen gizona, Mitarte-Garai nekazalturismo baserrikoa dugu. Artileaz haria egiten daki eta batzutan etxera hurbiltzen direnei haria nola egiten den erakusten die. Hari honekin artilezko galtzerdiak egiten dira. Gutxi izango dira Euskal Herrian haria egiten dakitenak. Bixentek ere izango ote du jarraitailerik? Mitarte-Garaikoak nekazalturismoaz gain baserritik bizi dira. Beste animalia batzuen artean ardiak dituzte. Uda partera ilea moztzen zaie ardiei, eta ile hau erabiltzen da haria egiteko. Guztira 80 bat ardi dituzte, eta orain udaran Degurixara igotzen dituzte, neguan berriz ere behera ekartzeko.

Lau urte dira Mitarte-Garaiko nekazalturismo etxea zabaldu zena. Orduetik hona munduko alderdi guztietatik hurbildu zaizkie turistak. Mitarte-Garain familia oso bat bizi da eta beraiek konpontzen dira dena aurrera ateratzeaz; baserritik bizi dira eta era berean nekazal turismotik.

“Turismoa egiteko modu desberdina da, lasaiagoa, famili girokoa, datozenek giroa eta janaria baloratzen dute gehienbat.”

□ Nola ausartu zineten nekazalturismoarako baserria martxan jartzen? Gu baserritik bizi izan gara beti. Publikoaz bizitzen ikasita geunden, plazarik plaza baserriko gauzak saltzen aritzen ginen. Izan Arrasatekoak gara baina etxe hau salgai jarri zuten eta terreno asko zituen. Nekazalturismoa barrez orduantxe ir-tenda zegoen eta pro-mozionatzen ari ziren. Diputazio eta Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen zituen.

□ Ze pauso eman dituzue honaino heldu ahal izateko? Hasiera batean Bergarako Agrariara joan ginen. Horrelako toki bat zabaltzeko baserritik bizi behar da eta animalia batzuk eduki behar dira. Nekazalturismoa baserritik bizi direnendako konplemento bat da.

□ Zein zerbitzu eskaintzen ditu? Hiru logela doble, jatetxea, betiko sukaldaritza etxeko produktuekin egina, zaldizko trabesietan hemen gelditzeko aukera, e.a. Orain artean zaldiak ere izan ditugu orain kendu egin ditugu.

□ Nondik etorten da jendea? Mundu guztiko jendea etorten da, Kanada, Holanda, Ingalterra,



Mitarte-Garai nekazalturismo baserria Arientzan dago

Alemaniatik, e.a. Euskaldunak ere bai, Donosti eta Bilbo aldetik batez ere. Estatutik katalanak eta madrildarrak etortzen dira gehien.

□ Ze nolako da etorten den jendea? Edadez danetarikoa. Oporretan familiak umeekin etorten dira. Parejak ere asko. Uda garaian hurbiltzen da lagun kopuru gehien, uztaila, abuztua eta irailean.

□ Zer esaten dute turistek? Inpresio handia hartzen dute, mendiekin harrিতuta gelditzen dira. Paisaia asko gustatzen zaie eta Urkuluko ingurua gehienbat.

□ Orain arte nolako esperientzia izan da? Oso ona eta aberasgarria. Jendeaz hitzegitea oso aberasgarria da eta pozgarriena jendea bueltan etortea da. Bezeroekin harreman ona izan behar duzu, eta ondo tratatzen jakin.

UDAn jokalaria barriak datorren tenporaldirako

UDako preferenteak eta lehenengo erregionalekoek joan den uztailaren 12an egin zuten lehen entrenamendua. Entrenamentua sardinada on batekin bukatu zuten jokalaria eta direktibakoek.

Aurpegi barri batzuk ikuteko aukera izan genuen UDak datorren tenporaldirako begira egin dituen fitxaketen artean.

UDako preferentea

Hurrengo tenporaldira begira UDako preferentean aldaketa dexente dago. Entrenadore barria izango du, eibartarra hain zuzen, Victor Mujika. Jokalari barrien artean Unanue atezaina daukagu, Oñatiko Aloña taldetik datorrena. Honez gain beste lau fitxaketa daude, Kepa Azkue Mondratik, Avalos Ermuatik eta bi hauez gain lehen ere UDAn ibilitakoak eta atxalbaltarrak direnak, Luis Mari

Madinabeitia Mondratik eta Alberto Garro Bergararik.

Bost fitxaketa barri dira guztira UDak egin dituenak. Datorren urteari begira lehenengo postuetan ibiltzea izango da UDaren helburua.

Lehenengo erregionala

Lehenengo erregionalean aldiz Alberto Mujika izango da datorren tenporaldirako entrenadore barria.

Jokalaria barriak ere izango dira, denak ere Eskoriatzako futbol taldetik datozenak, Zuñiga, Otxandiano, Roberto Martinez eta Lopez.

Esan behar da direktiba berdinak jarraituko duela UDAn, Bixente Etxeandia izango da presidentea.

Abuztuaren 21ean UDak presentazio ofiziala egingo du. Abuztuaren 23an barrez, partidu amistosoak jokatu dute preferentekoek Aloñamendiren aurka Atxabaltan.

Tenporada barria irailaren 10ean hasiko da.



Roberto Fraile atxabaltarra Zegaman karrera irabazi ostean

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako Fagor taldeak karrera ona korritu zuen uztailaren 2an Zegaman egin zen txirrindulari lasterketan. 75 kmtako korridua Otzaurte gainean bukatu zen. Fagor taldekoek hainbat ihesaldi egin zituzten. Azkenean, Otzaurteko igoeran Frailek ihesari eman zion eta bakar bakarrik sartu zen helmugan. Lehenengo hiruren sailkapena ondorengoa izan zen:

- 1- Roberto Fraile (Fagor)
- 2- T. Bartolomé (Iruok)
- 3- X. Sarasola (Iruok)

Mikel Roldan 9. postuan sartu zen eta S. Frutos 10. postuan. Mendiko saria ere R. Frailek irabazi zuen.

GUREA
TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Tfnoa: 79 20 64

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta


IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

ANGELINES



Autozerbitzua
Mitarte, 16 ☎ 79 61 42



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

GEMES


EPILATERM
Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta



Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Zikloturisten igoera Tourmaletera



Hona hemen Tourmaletera igotzeko Santa Maria de Campan aldetik dagoen desnibela. Zikloturistek hemendik igo zuten.




Tourmaleten (2115 m) zikloturistek ateratako argazkia. Ezkerretik eskumara: Otxoa, Rosado, Bote, Eraña, Aldabe, Nazario, Cándido, Curto, Errasti, Dioni, Baratas, Bilches, Bazquez

Atxabaltarrez, eskoriatzarrez eta arrasatearrez osatutako koadrila honek Tourmaletera igo zuen San Juan egunean.

Ekainaren 23an irten ziren etxetik. Tarbesera kotxean joan eta hemendik txirrinduan igo zuten Tourmaletera. Guztira 137 km egin zituzten, 55 Km lautadan, 23 Km aldapan gora eta haez gain beste 59 Km hasitako lekura iristen.

Igoera benetan gogorra egin zitzairen baina merezi izan zuen. Larri larri heldu ziren goraino. Azken 3 Kmak izan ziren gogorrenak. Hanketan kalanbreak eta guzti euki zituzten batzuk eta egarri handia pasatu zuten. Gora heldutakoan "Pajara" delakoaz egon omen ziren banaka batzuk. Eguraldi ona egin arren goian hotz handia egiten ei zuen. Santa Marie de Campan La Mongie aldetik igo eta jeitsiera barrez Barages, Luz Saint Sauveur aldetik egin zuten.


Benetan paraje ikusgarria dela kontatu digute, telebistan Tour-eko imajinetan ikusten den bezalakoa.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



EGUZKIGRAF

Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

Uztailaren 21ean bukatuko dira udaleku irekiak. Hiru astez ekintza mordo bat egiteko aukera izan dute umeek, Opakuara kanpinean irteera, Lexetxiki kobazulora irteera, eta honez gain jolasak, uraren eguna, San Ferminak, e.a. Ez dute aspertzeko arrazoirik izan, ikusi bestela zer kontatu diguten lau gaztetxo hauek.

1 Zer moduz udalekutan?

2- Zer da udalekutatik gehien gustatu zaizuena?



Ainitze Errasti
(8 urte)

1- Ondo. Lagun asko egin ditut eta gauza asko ikasi ditut, bustinakin irudiak egiten esaterako.
2- Bustina lantzea gustatu zait gehien. Katilu bat egin nuen.



Gilen Mar
(4 urte)

1- Ondo. Jokuak egin ditugu eta asko jolastu dugu.
2- Uretan sugusa haginekin hartu behar den jokuak gustatu zait gehien.



Unai Iruzubieta
(10 urte)

1- Ondo. Irteera asko egin ditugu.
2- Opakuara egin-dako bidaia gustatu zitzaidan gehien. Zuhaitz batera igo eta igela topatu genuen.



Araitz Garai
(13 urte)

1- Oso ondo. Gauza desberdin mordoak egin ditugu, pistinara joan, jokuak, e.a.
2- Kamisetak tintatzea asko gustatu zait.



Arrasateko Lezetxiki kobazulora irteera egin zuten batzuk. Argazkia kobazuloaren aurrean ateratakoa da.




San Fermin egunean Atxabaltako umeek ere hiru zezenen aurrean takarraran egin zuten. Argazkian ikusten den moduan denek zapi gorria eta jantzi txuriak jantzi zituzten.

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA



Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**Artano
Taberna**

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

**ARLUTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 32 34

SHOT!
grabaciones

SHOT! Grabaketak S.L.
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Eskatu Pabiloia
% 943-79 37 51

ARRASATE

Gipuzkoa





1 950. urte ingurua izango zen. Koruetako eskolan zebiltzen neska-mutiko hauek argazkia atera zuten elizpeko eskilaratan. Orduko apaiza eta irakaslea, argazkian eskileretako goren-gorenean dagoena, **Don Bonifacio Arenaza** (Don Boni) zen.

Garai haietan eskolako ordutegia, goizeko 10etatik 12etara bitartekoa zen eta 3retatik 5etara arratsaldean. Orduan, eguen arratsaldetan jai izaten zen, enterraixo egunetan ere bai, baita abadiak "joan bierra" izaten zuenean ere.

Koruetako eskolan ibilitakoak ondo akordetan dira eskolatik urteterakoan "usted lo pase bien" esan behar izaten zenaz. Erruki zen esaldi hau esaten ez zuena, galdetu bestela koruetarrei.

Esan dezagun ba nortzuk diren argazkian hain dotore dauden gaztetxo hauek: (Argazkiko ilerak argi ez daudenez, izenak jartzerako orduan saila egin zaigu)

Goitik hasita eta ezkerretik eskumara: **Antoni Jauregi, Felisa eta Asunción Zugasti, Maria Pilar Urteaga, Eulalia Agirregabiria, Pedro Zubizarreta, Madinabeitia, Jose Luis Errasti, Pedro Zubia, Cosme Errasti, Jesus Abasolo, Felix Goikolea.**

Jose Luis Iturbe (ezkerrean), **Jesus Mari Errasti** (ezkerrean), **Sebastian Uribetxebarria, Maritxu Isasmendi, Jose Antonio eta Daniel Uribetxebarria, Jose Uribetxebarria** (atzean), (hiru ezezagun lagun artean), **Jose Luis Zubia** (eskuman).

Beheko ileran: **Nati eta Puri Altube, Maria Dolores eta Ines Leibar, Ester Goikolea, Mari Tere eta Mertxe Uribetxebarria, Marilu Errasti.**

Eutsi ezinik



J.J. Aretxaga

Puertadelsolgo jaiak bukatu dira. Duda bat daukat, sutara egur gehiago bota ala ez. Neutrala izaten ahaleginduko naiz, nahiz eta neure bihotz txiki euskaltzaleak horretan gehiegi lagundu ez; aber ez zaidan igarten. Mus txapelketan **Joseba Elkoro** eta **Igor Etxabe** izan ziren txapeldunak. "Plaibak" delakoan, barrez, **Txikitron** taldekoak izan ziren irabazleak. Ni eguakotxean baino ez nintzen ibili, Egan taldekoak ikusi gura nituen eta. Eganekoek badakite giroa jarten, gainera atxabaltar bat ibili zen eurekin kantuan, **Bego Lekunberri**. Oso ondo kantatu zuen, primeran. Zapatuan, barrez, aita be ibili ei zen afarira joan zirenak animatu guran. **Juan Luis Lekunberri** eta alaba Ludi Berri izeneko taldeko partaideak dira. Besterik ez dakit ze

kontatu eta beharbada hobe dut isiltzea, baina gauza batzuk ez ditut entendiduten eta uste dut esplikazioak eskatzea alperrik dela.

Asko kostatuta gero UDAko neskek topatu dute atzenean entrenadore barria, **J. R. Prieto**. Bera mondragoetarra da, baina UDAn futboleant jokaketan ibilitakoa da.

Bartzelonako Casteldefels herrian Espainiako uretako ski txapelketa jokatu da. **Kamila Jauregi** atxabaltara uretako skiko hiru modalitatetan bigarren geratu da eta zilarrezko domina ekarri du etxera.

Uztailaren 23a egun berezia izango da herriko mojentzat. Arratsaldeko bostetan **Arantza Jakak** zin hitza emango du eta profesia nagusia egingo du. Arantzak 27 urte ditu eta orain dela lau urte t'ardi ailegatu zen Agustindar Elkartera. Ospakizunera apezpikua bera etorriko dela esan digute. Zorionak.

Nahiz eta lekua euki, ez dut gehiago idatziko. Ia oporretan gaude eta mentalizetan hasi behar dut.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Heziketa Berezia (Educación Especial) ikasi duen ikasleak lana egingo luke atzeratu edo heziketa arazoak dituzten haurrei laguntzen. Deitu, (943) 79 52 97 telefonora jan orduetan edo gauez.
- REMeko klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Deitu 3rak aldera, 79 48 38 telefonora.

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Lausita auzoan, 2. zenbakia. Telefonoa ondorengoa da: 79 85 68
- Garaje bat alokatzen da, Mitarte 11n. Interesatuak deitu 79 47 62 telefonora.
- Neska batek pisu bat alokatu gura du Atxabaltan. Bere telefonoa ondorengoa da: 79 49 70

- 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi kalean dago. Telefonoa: 79 01 17
- Garaje bat salgai dago Murubiden. Deitu 79 80 27 telefonora. Eguerdiko ordu bate-tatik ordubetara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

- Etxea salgai dago Atxabaltan, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna ditu. Altzari guztiekin. Prezio interesgarria. Deitu gauez, 79 67 26 telefonora.
- Mutil batek pisu bat alokatu gura du Atxabaltan. Harremanetarako telefonoa: 79 36 42


Rosa Mari Martinez de la Hidalga

"Beti gustatu izan zait drogeriako lana"



Rosa Mari Martinez de la Hidalga Errekabarrenen dagoen Leintz denakoa dugu. Dagoeneko hamar urte daramatza bertan lanean. Urte hauek azkar pasatu zaizkiola eta lana gustoko duela esan digu.

- **Nongoa da zure abizena?**
Arabako abizena da. Abizen arabarrak konpuestoak izaten dira.
- **Nola jarri zenuen horrelako negozio bat?**
Semeak ikasten hasi behar ziren. Enpresa batetan sartzea saila ikusten nuen eta hauxe pentsatu nuen izan zitekeela egokiena.
- **Ze gauza dituzu salgai?**
Denetarik dago hemen, lentzeria, kortsetegia, perfumeria, umeentzat erropak, e.a.
- **Jendea asko makilatzen dela uste duzu?**
Bai, eta batez ere azken aldian neska gazteak asko makilatzen direla konturatu naiz. Espainak margotzeko ohiturarik ez dago baina makilaje piskat emateko bai.
- **Gantzontzilo luzeak ala motzak saltzen dira gehiago?**
Motzak gehiago baina luzeak gero eta gehiago.
- **kafea azukreaz ala azukre gabe?**
Azukreaz, eta pastatxo batzuekin izanez gero hobeto.
- **Andramaixetan egoteko asmorik baduzu?**
Ez, normalean kanpoan egoten naiz.
- **Edozein jaietan zer gustatzen zaizu gehien?**
Egotea den ambientea orokorrean.
- **Ze iruditzen zaizkizu Realaren fitxaketa barriak?**
Fitxaketa barriekin ez nago oso enteratua. Baina Etxeberriarenak gerra asko eman du.
- **Oporretan joateko kanpina, hotela, ala zer duzu gurago?**
Ahal bada hotela, gero ahal dena egiten da.
- **Zer da oporretan gehien gustatzen zaizuna?**
Egunerokotasunetik ateratzea, baina orokorrean dena.
- **Eta gutxien?**
Itzulera.
- **Abestea gustatzen zaizu?**
Bai asko, gaizki kantatzen badut ere askotan abesten dut.
- **Zer abesten duzu?**
Denetarik.
- **Eta bukatzeko Rosa Mari, nora joango zara aurten oporretan?**
Rosasera 12 egun eta gero Zarautzera.




Xabier Etxenagusia
dugu aurreko alean saritu suertatu zena.
On egin!!!

Animatu zaitetze eta idatzi, beheko tarta goxoa zuentzat izan daiteke!!!

*Beheko galdera ondo erantzun eta saritu suertatzen denak, **Muruamendiaratz** gozotegiak oparitutako **tarta** goxo bat irabaziko du.*

*Erantzun guztiek **ARETXAGAZETAREN** bulegoan egon beharko dute (kultur etxean dagoen buzoian), datorren eguna baino lehen. Azkar ibili eta ez ahaztu idaztea beheko tarta goxo hori zuretzat izan daiteke eta.*



Gozotegia Izozkitegia

Muruamendiaratz

Durana, 2-Tfnoa: 79 07 88
Aretxabaleta

Zenbat logela izan behar ditu nekazaturismo baserri batek tope moduan?

a.- 8 logela _____

b.- 5 logela _____

d.- 6 logela _____

**Aurreko aleko erantzuna "Agurtzane Elkoro" da.*

Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Uztailak 23

KONTZERTUA

Udal musika bandaren kontzertua eta kalejira, Fraiskozurin, eguerdiko 12etan.

Uztailak 24 astelehena

BIDEO PROIEKZIOA

Arteari buruzko bideo proiektzioa. Kultur etxean arratsaldeko 7etan.

UDAKO KONTZERTUA

Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin, Espoloian gaueko 11etan

“GAZTEOK BIZIKLETAZ” VI. ARGAZKI LEHIAKETA

ASA eta LURRATS elkarten kolaborazioaz.

2 kategoria:

- a) Deba Garaiko 14-18 urte bitartekoak.
- b) 19-35 edozein

Zuribeltzean zein koloretan. Lanak aurkezteko epea: urriaren 11.

Informazio gehiago Arrasateko gazte informazioarako bulegoan: 77 00 65

EZAGUTU EUSKAL HERRIA BIZIKLETAZ

AEDk eta Iparraldeko Gazteriak, “Ezagutu Euskal Herria Bizikletaz” bidaia antolatu dute abuztuaren 1etik 15era. Ondorengo izango da ibilaldia: Arrasate-Garaio, Garaio-Etxarri, Etxarri-Narbarre, Narbarre-Kanbo, Kanbo Baigorri, Baigorri-Auritz, Auritz-Gotañe, Gotañe-Kanbo, Kanbo-Baiona-Uztaritze, Uztaritze-Donibane, Donibane-Pagola-Atharratze. Prezioa 15.000 pezetakoa da pentsio osoan. Izenemateko telefonoa AEDn 77 12 28

OÑATI




Uztailak 22

NAZIOARTEKO DANTZA JAIALDIA

Gaueko 10,30etan Nazioarteko dantza jaialdia egongo da Santa Ana Antzokian. Mejjkoko Compania de la Universidad de Colimak eskainiko du dantzaldia.

ARRASATE



Uztailak 20 osteguna

ZINEA

Gaueko 10,30etan Monterron parkean ZINEA. “Matinee” filmea. Sarrera 300 pezeta eta gazte txartelarekin 250 pezeta. Eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian emango da filmea.

Uztailak 24 astelehena

AUDIOBISUALA

Arratsaldeko 5etan Aita Menniko Aretoan “Ultrella, una experiencia en la ruta Jacobea” izeneko AUDIOBISUALA.

Uztailak 27 eguna

ZINEA

Gaueko 10,30etan Monterron parkean ZINEA izango da. “Amor a quemarropa” filmea. Sarrera 300 pezeta eta gazte txartelarekin 250 pezeta. Eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian ikusteko aukera izango da.

Uztailak 31 astelehena

SAN INAZIO EGUNA

Erromeria Kanpazarren

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gorotegia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Militaria 1 - Tfn. 77 00 81

*Aretxabaleta
Obrador Propio*

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

ARETXABAETA



Uztailak 20 eguna

PELIKULA LORAMENDI KULTUR ELKARTEAN

"Kareletik" euskal pelikula botako da. Gaueko 10etatik aurrera Loramendi Kultur Elkartearen.

Uztailak 25 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaeta-Udana-Astiria-Zerain-Zegama-Otxaurte-Altsasua-Egino-Narbaja-Aretxabaeta. Guztira 128 km. Irteera goizeko 8etan izango da Zaraia kaletik.

Uztailak 27 eguna

SANTIXAU JAIK KORUETAN

Ikusi egitaraua "hamabostean behinean"

Uztailak 31 astelehena

SAN INAXIO EGUNA MURU ALDE ELKARTEAN

Ikus egitaraua "hamabostean behinean".

Abuztuak 14, 15, 16, 17

ANDRAMAIXAK

Gora herriko jaiek!!! Ondo pasau

Gora Andramaixak!!! Oporretan Andramaixetaz be akordau zaitez

Opor ostean hemen izango gara Andramaixetako kontuekin

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaeta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 79 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 79 0970
- Murruxiko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 79 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udaltzaingoa 79 33 99
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAETA



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28

ARETXABAETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Errealitateak fikzioa gainditzen duenean.



Escort'95 berria



Batzuetan errealitateak espektatiba guztiak gainditzen ditu. Baita Escort'95ak ere. Automobil klase berria. Oso estilo jakinekoa. Ibilian, fikziozko munduan zaudela usteko duzu bere ixiltasuna eta dardara eza direla eta, baina errealitatea da. Bere suspentsio sistema berriak eta direkzio lagunduak, suabea eta arina egiten dute bidetan Escort berria.

Bere segurtasuna sistema aktibo eta

pasiboaz gain, gainera, lapurketen kontrako finkatzaile elektroniko sistema berria.

Escort berriak Zetek 16 V. edo Turbodiesel motore aurreratutak ditu eta aukera zabala 3,4,5 ate eta Nomade eta Cabrio modeloetan. Proba ezazu zure Banatzailean. Orduantxe ulertuko duzu errealitateak zergatik gainditzen duen fikzioa.



Ford guztion
segurtasunerako

Informazioa eta proba 900 51 51 51

MUGARRI

